

# Aholku literarioak Haur eta Lehen Hezkuntzarako

**KARRIKIRI**

IRUÑEKO EUSKALDUNON TOPAGUNEA





## Aholku literarioak Haur eta Lehen Hezkuntzarako

KARRIKIRI

Kalitatezko haur liburuak proposatzen zaizkizue, zikloz ziklo mailakatuak; eta, gure esperientzia oinarri, honakoak hartu ditugu kontuan zerrenda osatzerakoan: Galtzagorri Elkartearen “Ezinbesteko” liburuak, HUHEZIk osatutako “Oso gomendagarriak” eta “Zerrenda berezia” zerrendak, eta EIBZren Kanon literarioa. Halaber, hezkuntzan diharduten hainbat irakasle eta familien irizpideak aintzat hartu ditugu. Azken horien iritzia eta Iruñeko Xabier karrikako euskal dendan egiten zaien jarraipena kontutan hartu ditugu zenbait izenburu azpimarratzeko eta zerrenda osatu ditugu.



## Aholku literarioak Haur eta Lehen Hezkuntzarako KLASIKOAK

KARRIKIRI

Aholku honetan **Klasiko Unibertsalak** eta **Euskal Klasikoak** bereizi dizkizuegu, adin tarteetan mailakatuta. Hala ere, zerrenda honek edozein irakurleri balio diezaioke klasikoengana hurbiltzeko eta horiek ezagutzeko, edozein dela ere bere adina.

Zuetako askok egindako eskaera kontuan hartu dugu, eta horregatik solasaldi dialogiko literarioen teknika lantzeko ezinbesteko klasikoak aurkituko dituzue; testu klasikoan mezuek balore unibertsalak lantzeko aukera aparta ematen dute eta, gainera, norberaren interpretazioak modelatzeko estrategiak garatzeko ezinbesteko lanak dira.

Izan ere, besteak beste, klasikoak denboran zehar iraun duten obra literarioak dira, irakurle belaunaldi askok irakurri dituzten testuak, batzuk orain dela hiru mende idatziak, itzulpengintzari esker geureganaino iritsi direnak.



## Aholku literarioak Haur eta Lehen Hezkuntzarako Heziketa afektibo sexuala

KARRIKIRI

Liburu aholku zerrenda hau osatzerako garaian hainbat, irakasle, irakurle, guraso naiz sexologoren irizpidea aintzat hartu dugu. Horretarako mezu estereotipatuetatik hurrentzen diren liburuetan jarri dugu arreta, genero berdintasunean hezteko baliagarriak diren liburuak aztertuz eta hautatuz.

*“Parekidetasunean eta diskriminaziorik gabe biziko garen jendartea lortu nahi badugu eta harreman komunikatzaile, atsegin, berdintasunezko, arduratsu eta askeak lortu nahi baditugu, haurrei kalitatezko heziketa afektibo sexuala eskaintzea ezinbestekoa da”.*

Helburu hori lortzeko bidean lagungarri izango zaizue hemen aurkezten den zerrenda. Eskoletan gaia lantzeko aukerak nahiz atek irekiko dizkizuen istorioak biltzen dira hemen. **SKOLAE** programaren partaide zareten guztiontzat ere baliagarria izango delakoan gaude. Irakurtzeko zaletasuna eta gaitasuna elikatzen eta sustatzen jarraitu nahi dugu irakurketak duen gaitasun eraldatzailea aldarrikatuz. Beste behin ere irakurtzen ditugun edukietan arretaz jarritz; heziketa afektibo sexualean.

# Kaixo lagun,

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeentzako gomendio literarioak aurkeztera gatozkizu. Horretarako, gure gomendioak biltzen dituzten hainbat zerrenda osatu ditugu.

Ikasleen irakurmen gaitasuna garatzeko aproposak diren liburuak bildu ditugu eta, beraz, heziketa literario-linguistikoaren garrantziaz jabe den irakasle ororentzat baliagarri izanen delakoan gaude.

Heziketan parte hartzen duzuen guztiok irakurzaletasunaz goza dezazuen nahi dugu, gure ustez ezin baita irakurtzeko ohitura elikatu gabe utzi. Horrela, gure gomendio literarioek irakurmen gaitasuna garatzea eta sendotzea dute helburu.

Izan ere, Karrikiri elkartetik hizkuntzaren eta literaturaren ikaskuntza sustatzeko baliabide desberdinak eskaintzen ditugu.

Kalitatezko haur liburuak proposatzen zaizkizue, zikloz ziklo mailakatuak; eta, gure esperientzia oinarri, honakoak hartu ditugu kontuan zerrenda osatzerakoan: Galtzagorri Elkartearen “Ezinbesteko” liburuak, HUHEZIk osatutako “Oso gomendagarriak” eta “Zerrenda berezia” zerrendak, eta EIBZren Kanon literarioa. Halaber, hezkuntzan diharduten hainbat irakasle eta familien irizpideak aintzat hartu ditugu. Azken horien iritziak eta Iruñeko Xabier karrikako euskal dendan egiten zaien jarraipena kontutan hartu ditugu zenbait izenburu azpimarratzeko eta zerrenda osatu ditugu.

Lehenengo aurkezten dizueguna zerrenda orokorra da. Bertan, gai desberdinak jorratzen dituzten liburuak mailaka sailkatuta aurki ditzakezue. Hurrengo hilabeteetan beste bi zerrenda aurkeztuko dizkizuegu: alde batetik klasikoen zerrenda, solasaldi edo tertulia dialogikoak ikasgelan aurrera eramateko liburu egokiak eta azkenik, bizikidetzeta eta heziketa afektibo sexuala lantzeko izenburu gomendagarriena.

Zerrendetan, agortuta edo deskatalogatuta dagoen libururik ez duzue aurkituko, salgarriak direnak baino ez. Beti bezala, Karrikirin prest gaude behar duzuen informazio gehigarria emateko; eta, noski, libururen bat nahi izanez gero, dendara etor zaitezke edo zuen eskolara hurbil gaitzke.

## *Eskaeretakako, aholkularitzarako, harremanetakako*

✉ liburuak@karrikiri.eus | Haizea Beruete

📍 Xabier karrika 4 behea, 31001 Iruñea, Euskal Herria

🌐 www.denda.karrikiri.eus

☎ 948 225 845 | 695 905 607

The background features several large, overlapping organic shapes in shades of blue, yellow, and pink. A thin black line curves across the upper portion of the page, with a small white circle attached to it. Scattered throughout are several small, solid-colored circles in yellow, pink, and green.


# Haur hezkuntza

*0-6 urte*

# 0-6 Urte

Izena	Idazlea eta ilustratzailea	Argitaletxea
Angelika milapatrikaren patrikak	Quentin Blake	Pamiela + Kalandraka
Arturo	Xosé Manuel González	Pamiela + Kalandraka
Arturo eta Klementina	Adela Turin	Pamiela + Kalandraka
Aurretik ondoren	Anne Margot Ramstein	Ttarttalo
Beldar gosetia	Eric Carle	Ikas
Bi txori	Dipacho	Ttarttalo
Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo	Werner Holzwarth + Wolf Erlbrunch (ilus.)	Pamiela + Kalandraka
Elmer	David McKee	Erein
Elmer berriro ere	David McKee	Erein
Ernesto eta Zelestina - Eguberriak etxean	Gabrielle Vicent	Pamiela + Kalandraka
Frederick	Leo Lionni	Pamiela + Kalandraka
Hartz txiki	Else Holmelund Minarik + Maurice Sendak (ilus.)	Pamiela + Kalandraka
Igeritz	Leo Lionni	Pamiela + Kalandraka
Ingurumarian	Julie Safirstein	Ttarttalo
Kaka putza	Stephanie Blake	Denonartean
Kokoriko	Marisa Núñez	Txalaparta
Loreren ibilaldia	Pat Hutchins	Pamiela + Kalandraka
Maria goikoak, batbirulau!	Angel Lertxundi + Antton Olariaga (ilus.)	Erein
Nola dastatu ilargia?	Michael Grejniec	Pamiela + Kalandraka
Piztia arraro bat	Mon Daporta	Pamiela + Kalandraka
Txori baten portreta egiteko	Jacques Prevert	Pamiela + Kalandraka

Amets Gaizto  
nire armairuan



Kalandraka

Pamiela


## Amets gaizto nire armairuan

Mercer Mayer

Pamiela + Kalandraka

«Amets Gaizto nire armairuan» aitoren batean oinarritua da: bere ikarak kontatzen dizkigu mutiko batek. Ikarak uxatzeko, armairuko biztanleari aurre egitea erabakiko du. Biztanle arrotz hori ordea, loa galarazten diona, ez da hain gaiztoa... Umore eta samurtasun handiko ipuina dugu hau, inondik ere. Horrek egin du klasiko.

## Bost minutuko lasaialdia



Kalandraka

Pamiela

## Bost minutuko lasaialdia

Jill Murphy

Pamiela + Kalandraka

Bost minutuko lasaialdia obrak ume txikien ardura dutenen desira ia iritsiezin bat aldarrikatzen du: une batez mundutik bakartu ahal izatea, umeek tarte hori eragotzi gabe beren kezka, ustekabeko burutazio eta espontaneotasunez. Azpimarratzekoa da animalia sendoak aukeratzea, elefanteak, halako kontakizun jostagarri eta maitagarri horretako protagonista gisa.

## KULUN-KUTTUNAK

YOLANDA ARRIETA AITZIBER ALONSO




## Kulun-kuttunak

Yolanda Arrieta

Denonartean

Lo-kanta liburu ilustratua da. Bertan aipatzen denez, Labayru fundazioko Ahozko Artxibotik jasotako material originaletatik abiatuta sortu dira testu berriak. Amak haurrari abesten dio, naturako elementuei aipamena eginez, errimak lagunduta eta konparazioak eginez. Ahozko testua den neurrian, onomatopeiak daude, errepikapenak, erantzun gabeko galderak...

## PIZTIAK BIZI DIREN LEKUAN



TESTUA ETA IRUDIAK MAURICE SENDAK

Kalandraka

## Piztiak bizi diren lekuan

Maurice Sendak

Pamiela + Kalandraka

Aurreko batean, eta alde honetako beste erreseina batean ere, Kalandraka argitaletxeak haur txikienezako albumetan eginiko ekarpen garrantzitsua aipatzen genuen. Oraingoan haur literaturan klasiko bat den Maurice Sendak ilustratzaile eta idazle estatu batuarraren libururik ezagunena euskaraz irakurtzeko parada eskaintzen digu argitaletxe galiziarrek.

The background features several large, overlapping organic shapes in shades of blue, yellow, and pink. A thin black line curves across the upper portion of the page, with a small white circle attached to it. Scattered throughout are several small, solid-colored circles in yellow, purple, green, and pink.

# **Lehen Hezkuntza**

*6-12 Urte*

# LH - 1

Izena	Idazlea eta ilustratzailea	Argitaletxea
Auskalo! Igarkizun eta aho-korapiloak	Xabier Olaso	Pamiela
Azken gutuna	Antonis Papatheodoulou	Pamiela + Kalandraka
Baionako alarguna	Patacrua + Javier Solchaga	Txalaparta
Basoan barrena	Anthony Browne	Pamiela + Kalandraka
Bidean	Garazi Arrula + Helena Azkarragaurizar	Denonartean
Esna al zaude?	Hanna Johansen	Alberdania
Ez da erraza katagorri!	Elisa Ramon + Rosa Osuna	Pamiela + Kalandraka
Ipuinen haria	Ferida Wolff	Ttarttalo
Klarion gorria	Iris Van der Heide	Ttarttalo
Koloretako munstroa	Anna Llenas	Flamboyant
Lagun berriak	Tomi Ungerer	Pamiela + Kalandraka
Mitxitxi marriau	Begoña Durruty	Erein
Pupuan trapua	Xabier Olaso	Pamiela
Xomorropoemak eta beste piztia batzuk	Leire Bilbao + Maite Mutuberría	Pamiela
Zenbakien guda	Juan Darien	Txalaparta






## Euskal Herrietako ipuinak

Juan Kruz Igerabide + Elena Odriozola (ilus.)  
Denonartean


Ipuinak denboran hara galtzen dira, aro batetik bestera; aro batzuk gogoan ditugu, idatziz jasota; beste batzuk, berriz, betiko galdu ditugu. Pirinioen bi aldeetako euskal herrietako ipuinak dira, ikertzaileek jasoak. Batez ere Jose Maria Satrustegik Nafarroan eta Joxe Miel Barandiaranek eta Joxe Arratibelek Gipuzkoan jasotakoetan oinarritu naiz.



## Hamaika andere ausart

Oli  
Pamiela + Kalandraka

Andere ausart hauek mundu guztian barnako ibilbidea eginen dute, eta, abentura bakoitzean, haietako bat desagertuko da. Hamaika andere ausart ipuina herrialdi guztietan bizirik dauden herri errimen egituraz baliatzen da antzinako errima gaurkotzeko eta tradizio hori irakurle gazteenei hurbiltzeko. Fantasiatzko ipuin bat da horretarako baliabidea, toki geografiko eta kultura desberdinak alegia.



## Moko txiki

Leire Bilbao + Maite Mutuberría  
Pamiela + Kalandraka

Moko txikidun txori txikia hipopotamoaren bizkarrean bizi da. Hortik aurrera, irakurleak berehala identifikatuko du txikiaren eta handiaren garapena, ilustrazioak ikusi hutsarekin. Tamaina eta koloreen erabilera irizpide zorrotzez erabiltzen du ilustratzaileak marrazkiak irakurriaz bakarrik istorioa ulertu aldera. Bestalde, narrazioa bere laburrean esaldi poetiko eta jostalariekin ondu da.




## Piztipoemak eta beste xomorro batzuk

Leire Bilbao + Maite Mutuberría  
Pamiela

Umeek literaturarekin duten lehen kontaktua poesiarekin dela ahazten zaigu sarritan. Txiki txikitako kanta, aho-korapilo eta hitz asmaketekin poesia sortzen dute berez eta natural. Irakurtzen hasten direnean, ordea, ipuin narratiboak eskaintzen dizkiegu eta poesia bazter batera utzi. Horrenbestez, urteekin poesiara hurbiltzen direnean arrotza egiten zaie, zaila eta konplikatua. Katebegia hautsi ez dadin, eta era natural batean poesia lantzen jarrai dezaten asmoarekin sortu dira liburu hauek.

# LH - 2


Izena	Idazlea eta ilustratzailea	Argitaletxea
Aizak eta aizan elkarrekin dantzan	Anjel Lertxundi	Elkar
Barruko leihoa	Pello Añorga + Jokin Mitxelena (ilus.)	Pamiela
Han Gan-en zaldi magikoa	Chen Jiang Hong	Ttarttalo
Hiru txerrien txerrikeriak	Mario Ramos	Ttarttalo
Ilbetea dilindan	Jon Suarez Barrutia	Pamiela
Itsasoa etxe barruan	Harkaitz Cano	Elkar
Joemak eta Polasak	Iñigo Astiz + Maite Mutuberria (ilus.)	Elkar
Maripuzker	Mitxel Murua	Elkar
Osaba Elefante	Arnold Lobel	Pamiela + Kalandraka
Otsoa itzuli da!	Geoffroy de Pennart	Ikas
Posta tigrearentzat	Janosch	Pamiela + Kalandraka
Sagu kontuak	Arnold Lobel	Pamiela + Kalandraka



## Besarkada

Uxue Alberdi  
Elkar


Heldu batek ozenki irakur diezaioke haur bati, besarkada baten magalpean, baina biharamunean haurra izan daiteke helduari irakurtzen diona, rolak aldatuz. Izan daiteke haur batek beste bati irakurtzea ere, bitartekari batek horretarako bidea erraztu duelako. Bitartekariaren arrimura dastatzeko liburua da, bada. Bitartekari batek irakurketa-bideak zabaltzeaz gain, ohiko kode ezagunetik at dauden hizkerak eta kontatzeko moduak errazten ditu, irakurketa-uneari intentsitate intimoa erantsiz, kasu honetan bezala.



## Otso bihozbera

Pennart de Geoffroy  
Ikas


Alegia honetan, protagonista nagusia haur ipuinetako pertsonaia arketipoa da: otsoa. Lukas otsoari gurasoen etxea uzteko unea iritsi zaio. Gurasoen aholkuen artean, Lukasek aitarengandik jan behar duenaren zerrenda jasotzen du. Zerrenda horretan, ipuin batzuetako pertsonaiak azaltzen dira: txanogorritxo, hiru txerrikumeak, 7 antxumeak... Ipuinean zehar pertsonaia horiekin topo egingo du, baina ez ditu jango, gure otsoa bihozbera delako...



## Urrezko giltza

Patxi Zubizarreta  
Elkar

Olatz ileapaintzailea, Martin kamioizalea, Kattalin, Nikolas eta Malen haurrak, Tomas aitona nekazaria eta Ageda amona bidaiazalea, eta baita ileapaindegira joaten diren Gaspar lorezain pobrea eta Maddi musika irakaslea. Hona hemen, urte osoan luzatzen den istorio bihurri honetan txertatuak, 25 ipuin, 25 kantu eta 25 jolas formula inguru –bi diskotan ahots eta ahots bihurturik– ikasgelan nahiz etxean modu jostarienean ezagutzeko eta tradizioarekin jolasteko.




## Zer dela eta zer dela

Xabier Etxaniz Erle  
Pamiela

Igarkizun bakoitza misterio txiki bat da. Jolastuz aurkitu behar dugun misterioa. Esku artean duzun liburu honetan estilo eta gai guztietako igarkizunak aurkituko dituzu; denak deszifratzeko, jolasteko. Hizkuntzaren mundura, naturara eta mila tokitara eramango zaituzte liburu honetako igarkizun eta ilustrazioek.

# LH - 3

Izena	Idazlea eta ilustratzailea	Argitaletxea
Akim ihesi	Claude K. Dubois	Ttartalo
Amona basoan galdu zenekoa	Arantxa Iturbe	Elkar
Bi ipotx gure etxeko sofan	Arantxa Iturbe	Elkar
Bi sagu poltsikoan	Mitxel Van Zeveren	Elkar
Ebelina Mandarina	Castillo Suarez	Erein
Hasiera	Paula Carballeira	Pamiela + Kalandraka
Hegaztiak	Maria Julia Diaz	Pamiela + Kalandraka
Makal sendoak	Antton Kazabon	Denonartean
Neuk sendatuko zaitut, tigre	Janosch	Pamiela + Kalandraka
Nils Holgerssonen bidaia miresgarria	Kochka	Ibaizabal
Puntan punta bat (Haur Folklorearen bilduma)	Xabier Etxaniz Erle	Pamiela
Tropezista	Jorge Gonzalvo	Denonartean
Ur: euriaren liburua	Juan Kruz Igerabide + Elena Odriozola (ilus.)	Denonartean
Zangozikin	Koldo Izagirre	Igela
Zirku magikoa	Philippe Lechermeier	Ibaizabal



## Euskal Herrietako ipuin gaiztoak

Juan Kruz Igerabide + Elena Odriozola (ilus.)

Denonartean

Maitagarriak eta sorginak airearen eta ezerezaren tarte-tartean bizi dira. Badira zirrikituak haiek ikusteko, gardentasunean ikusten dakitenentzat: haurrentzat alegia. Badira sorgin maitagarriak, bere makilatxo eta guzti, auzokoei laguntzen dietenak; eta badira sorgin gaiztoak, amaren edo aitaren lekua hartzen dutenak, eta ez dute atsedetik izaten haurrak galbidera eraman edo hondatu arte.



## Kanpoaldeko munduan

Maurice Sendak

Pamiela + Kalandraka

Istorio honetan, mamarro batzuek Aidaren ahizpa nola bahitzen duten kontakuko digu Maurice Sendakek. Aida, gertakari lazgarri honen aurrean, mundu miragarri batean murgilduko da, eta mamarroen aztikeria maltzurra hautsi egin beharko du. Kanpoaldeko mundua arriskutsua da, eta hantxe galduko du inozentzia. Hau da, hain zuzen, liburuaren gako nagusienetako bat: xalotasunaren galera.



## Mari Xor

Yolanda Arrieta + Aitziber Alonso

Denonartean

Geure herentziatik sorturiko maitagarri-ipuina duzue Mari Xor. Euskal Herrian kokatuta dago, baina mundu osoan uler daiteke: unibertsala da. Jaso dugun bezala doakizue, jantziz berrituta. Maitagarri-ipuin bat, XXI. mendean. Zergatik, ez?



## Xia Tenzinen bidaiak miresgarria


Patxi Zubizarreta

Ibaizabal

Tximeleta euria, kristal euria, euri berdea, harri euria, apo eta suge euria, txinparta euria, malko euria, izar euria, istorio euria eta tximeleta euria. Horrela dute izena liburu honetako hamar atalek. Liburuaren izenburuak berak eta atalen izenek iradokitzen diguten moduan, magia eta lilura dira nagusi kontakizunean zehar.

# LH - 4

Izena	Idazlea eta ilustratzailea	Argitaletxea
Agur, agur!	Castillo Suarez	Erein
Alex	Mariasun Landa	Erein
Alizia herrialde miresgarrian	Lewis Carroll	Pamiela
Anekdotak	Ruben Ruiz	Pamiela
Egun osorako poemak	Juan Kruz Igerabide	Pamiela
Euskaldun bat Marten	Iñaki Zubeldia Otegi	Ibaizabal
Iholdi	Mariasun Landa	Erein
Izeba txikia	Mariasun Landa	Erein
Jira, Peli eta hirurok	Roald Dahl	Begiko
Nemo kapitainaren azken bidaia	Castillo Suarez	Erein
Nire arreba Aixa	Meri Torras	Elkar
Nire hiriko poemak	Ana Urkiza + Elena Odriozola (ilus.)	Pamiela
Siberia treneko ipuinak	Bernardo Atxaga	Erein
Usoa, hegan etorritako neskatoa	Patxi Zubizarreta	Erein
Xola eta Angelito	Bernardo Atxaga	Erein
Xola eta basurdeak	Bernardo Atxaga	Erein
Xola eta lapurra	Bernardo Atxaga	Erein




## Amattoren uzta

Mayi Ariztia

Erein

Erraten zuen ere, nahi baldin bazen froga bat, egiazki Axular salbatua izan zela, eta deabrua bentzutua eta garaitua, aski zutela bihotza kentzea eta ezartzea sagarrondo baten gainean: zeruan baldin bazen, fika edo mika batek eramanen zuela bihotz hori, eta zigortua bazen, bele batek. Hala egin zuten. Eta etorri ziren berehala bele bat eta mika bat, karrankaka! Baina ez zuten ez batek ez bertzeak bihotz hura eraman. Hurbildu zen uso xuri bat, eta hark igan zuen Axularren bihotza, zeruetan goiti.



## Amona, zure iholdi

Mariasun Landa

Erein

Martinek linterna bat atera zuen bere motxilatik, eta nik galdetu nion zertarako zen eta berak ez zidan ezer ere erantzun, eta urduri nengoen, ez nekien zergatik... Eta, bat-batean, jira egiteko eta begiak zabaltzeko agindu zidan. -Alto! Geldi hor! Orduan, amona, Martinek pistola batekin apuntatzen ninduela ikusi nuen, edo hobeto esanda, hasieran linternaren argiak itsutu egin ninduen, eta gero beste eskuan pistola bat zuela ikusi nuen...



## Grigor eta erlea

Juan Kruz Igerabide + Concetta Probanza (ilus.)

Alberdania

Grigor, haur guztiak bezala, mundua miatzen dabil, zer topatuko. Lagun ezin hobeak aurkitzen ditu bidean, eta, guztien gainetik, erlea du bidelagun eta adiskide zintzo. Liburu honetan lau ipuin dibertigarri aurkituko dituzu: egunez parke batean, gauetz zoo batean, denboraldi bat ospitalean eta oporraldi bat baserrian.



## Xolak badu lehoien berri

Bernardo Atxaga + Mikel Valverde (ilus.)


Erein

Harrera ezin hobeia izan dute Bernardo Atxagaren Xolaren xolakeriek. Mikel Valverdek eginiko marrazkiek ere gure etxe sukaldeetaraino egin diete sarrera hala Xolari nola Grogto jaunari. Xolak badu lehoien berri izan zen bildumako lehen lana eta argitara orduko beregana zuen arrakasta. Espainiako Sari nazionala ere irabazteko zorian izan zen: finalista izendatu zuten.

# LH - 5

Izena	Idazlea eta ilustratzailea	Argitaletxea
Amilami	Juan Kruz Igerabide	Elkar
Galtzerdi suizida	Mariasun Landa	Elkar
Garmendia errege	Kirmen Uribe	Elkar
Garmendia eta zaldun beltza	Kirmen Uribe	Elkar
Greg 1. Gizajo baten egunkaria	Jeff Kinney	Alberdania
Greg 10. Eskola zaharra	Jeff Kinney	Alberdania
Greg 2. Rodricken legea	Jeff Kinney	Alberdania
Greg 3. Hauxe besterik ez nuen behar!	Jeff Kinney	Alberdania
Greg 6. Etxean itxita	Jeff Kinney	Alberdania
Greg 7. Bikotean hiru	Jeff Kinney	Alberdania
Greg 8. Suerte txarra	Jeff Kinney	Alberdania
Itsasargia	Koos Meinderts	Ttartalo
Smara	Paula Carballeira	Pamiela + Kalandraka
Nur eta ortzadar-txoria	Toti Martinez de Lezea	Erein
Txori txoraa	Juan Kruz Igerabide	Alberdania





## 28 ipuin barre egiteko

Ursula Wölfel  
Alberdania


Hogeita zortzi ipuin eta hogeita zortzi ilustrazio ageri dira Wölfel-en liburu klasiko honetan. Ezin egokiagoa zortzi-hamar urteko haurrek irakurtzeko edo gurasoak irakurri eta txikiagoei kontatzeko ere. Irakurtzeko atseginak eta kontatzeko errazak. Beti irribarrea ezpainetan.



## Bat-batean krispetak

Karkos Linazasoro  
Alberdania


Bat-batean krispetak liburu ezberdina da. Bertan biltzen dira olerki laburrak, esaldi aforistikoak, koplak eta ipuin luze bat erregalorako: Gartzeain. Olerki eta aforismoen zatian argitasun handiz jokatzeko du Linazasorok hitz gutxi batzuen bidez haurraren irudimena zabaltzeko. Gartzeain ipuinean, berriz, kontakizun poetiko bat da non herri bat nola desagertzen doan kontatzen baitzaigu.



## Hiru egun balearen sabelean

Patxi Zubizarreta  
Pamiela

Ba al dakizu, lehen, baleak euskal kostalderaino iristen zirela? Ba al dakizu gaurko estropaden jatorria orduko arrantzaleen harrapaketa dela? Ba al dakizu, gerora, baleak urritu, eta baleazaleak Kanadaraino joaten zirela, ehundaka, milaka...? Ba al dakizu baleontzi bakoitzean mutil gazte bat joaten zela laguntzaile, eta Txo esaten ziotela? Beharbada hori guztia badakizu, baina ezetz jakin zer gertatu zitzaion San Roke itsasontziko txoari, nolako zeharkaldia egin behar izan zuen Ternuaraino, ekaitzek eta zorigaitzek nola eraso zioten, eta, finean, zergatik esaten zioten Ismael...?



## Zupankapaloak

Pello Añorga + Jokin Mitxelena (ilus.)  
Denonartean

Zer da zupanakapalo liburua? bestiario liburua edo disparatarario liburua? leloen feria jitanjaforen furia edo aleluen fanderia? astoaren arrantza edo ahuntzaren gau erdiko eztula? basakirtenkeria mintza edo bufonkeria distira? kale gorrietako blusa edo asfalto beltzeko iragarkien autobusa?

# LH - 6


Izena	Idazlea eta ilustratzailea	Argitaletxea
Bihotzak dun-dun	Miren Agur Meabe	Elkar
Catherine Certitude	Patrick Modiano	Erein
Eskubeltz taldearen abenturak	Hans Jürgen Press	Elkar
Itsasadarreko kontuak	Paddy Rekalde	Elkar
Jack txikiren balada	Mikel Valverde	Denonartean
Kea airean bezala	Imanol Azkue	Elkar
Kafka eta panpina bidaiaria	Jordi Serra i Fabra + Elena Odriozola (ilus.)	Elkar
Maíto panduro	Gonzalo Moure Trenor	Ibaizabal
Matilda	Roald Dahl	Begiko
Pikolo	Patxi Zubizarreta	Alberdania
Sasiolako errotaria	Ramon Olasagasti + Xabier Sagasta	Erein
Sinbad deitzen zidan	Francisco Castro	Alberdania
Tristek kontsolatzeko makina	Angel Lertxundi	Erein
Zomorroen kluba oportetara doa	Laida Lopez Navarro	Erein



## Charlie eta txokolate-lantegia

Roald Dahl  
Begiko

Roald Dahl bere irakurleak gutxiesten ez dituzten idazle bakanetako bat izan zen. Ez zion beldurrik ematen subertsiboa izateak. Argiz betea eta iluna zen aldi berean. Wonka jaunak bost urrezko txartel ezkutatu ditu bere txokolate-barretan. Txartel horiek aurkitzeko zortea dutenek haren txokolate-lantegi miresgarria bisitatuko dute. Charlie, zorionez, txartel horietako bat aurkituko du, eta, une horretatik aurrera, haren bizitza betiko aldatuko da.



## Etzi

Karlos Linazasoro  
Elkar

Bruno hamahiru urteko mutikoa, ezin ditu beste neska-mutikoez egin ditzaketen gauza asko egin; dohain handiak ditu, baina gabeziak ere bai. Musu indartsuak ematen dizkie gurasoei, nobia ere badu, burugorria da, bihurria, maitagarria... Etxean asko estimatzen dute, baina orain Brunoren eserlekua hutsik dago.



## Hau ez da zoo bat!

Alaine Agirre  
Elkar

Malenek betidanik nahi izan du animaliaz inguraturik bizi, baina kaleko pisu batean ez da erraza, eta gurasoek ez dituzte ikusten eragozpenak baino. Oztopoak oztopo, Malenek aurrera egingo du. Lehenengo, ikasgelako landare eta animaliak zainduz. Gero, andereño Anak oparitutako arrain pareta gobernatuz. Eta ondoren etorriko direnak...



## Nahi duzu izan nire ahizparen mutila?

Maite Carranza  
Giltza

Alizia dut izena eta Sonia izeneko arazo bat daukat. Sonia nire ahizpa da eta tratatu txarra eman dit jaiotzenetik. Orain dela hamaika urtetik hona tratatzen nau gaizki, gau eta egun, baina adin txikikoa denez, ez dute kartzelan sartzen eta ezin diote epaiketarik egin, naziei bezala, pertsona errugabeak torturatzeagatik. Gainera, nire gurasoen urtez, oso normala da guztia, Sonia nerabea delako eta horrek den-dena zurrizko balio du.



## Prezioen inguruko informazioa

<https://denda.karrikiri.eus>

Ikastetxeentzako %10 deskontua  
Bazkide bazara %5 deskontua



*Eskaeretarako, aholkularitzarako, harremanetarako*

liburuak@karrikiri.eus | Haizea Beruete  
Xabier karrika 4 behea, 31001 Iruñea, Euskal Herria  
[www.denda.karrikiri.eus](http://www.denda.karrikiri.eus)  
948 225 845 | 695 905 607

